

Unibertsitate mailako Kalitate-Agentzien egitekoa: sarrerako prestakuntza-tailerra

Helburua

Prestakuntza-tailer honen helburua UPV/EHUko ikasleei Unibertsitate mailako Kalitate-Agentziek, oro har, eta Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak, zehazki, egiten duten lanari buruzko hastapen-prestakuntza ematea da. Ikasleei titulazioen eta zentroen barne eta kanpo kalitate-ziurtapena zertan diren azalduko zaie, horretarako prestakuntzan ikuspegi zorrotza erabiliz, baina ahalik eta modu erraz eta dinamikoenean, beti ere, prozesu horietan ikaslearen inplikazioa hobetzeko asmoarekin.

Partaideak

Unibertsitate-kalitatea hobetzeko interes eta sentsibilitate berezia duten jardunean dauden ikasleei zuzenduta dago tailerra. Tailer bakoitzean gehienez 25-30 ikaslekidek parte hartuko lukete.

Data eta egoitza

Lehen tailerra — tailer pilotu gisa planifikatu dena —UPV/EHUren Gipuzkoako Campusean egingo da, 2023ko martxoaren 22an (asteazkena). Tailer hori egin ondoren, antzeko beste tailer bat planifikatuko da, UPV/EHUren Bizkaiko Campusean lehenik eta UPV/EHUren Arabako Campusean ondoren, tailer pilotua burutu ostean jasotako hobekuntzekin. Tailer horietarako jasotako eskaeraren arabera beste prestakuntza-tailer batzuk planifikatuko lirateke, eskaria potentzialari erantzun ahal izateko.

Irakaslegoa

Tailerra Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako langileek emango dute. Tailerra euskaraz eta gaztelaniaz emango litzateke; bi hizkuntzak erabiliko lirateke.

Programa

10:00-10:10	Aurkezpena
10:10-11:00	Unibertsitate-kalitatearen ziurtapena eta Kalitate-Agentzien lana
11:00-11:15	Etenaldia: Kafe-hamaiketakoa
11:15-12:15	Tituluen eta ikastetxeen ebaluazioa hobetzeko funtsezko alderdiak
12:15-13:15	Ikasleen parte-hartzea sustatzeko ekintzak
13:15-13:30	Ebaluazioa eta amaiera